

METODOLOGIA-FITXA

UR-MASEN KALITATEAREN ESTADISTIKA (090214)

Identifikazioa

Eragiketaren izena.

Ur-masen kalitatearen estatistika.

Eragiketaren kodea.

090214 (3/2014 Legea, azaroaren 13koa, 2014-2017 Euskal Estatistika Planari buruzkoa).

Erakunde arduraduna.

Ingurumena eta Lurralde Politika Saila.

Beste erakunde partaide batzuk.

EUSTAT. Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística.

Gai-arloa.

Ingurumena.

Maiztasuna.

Urtekoa.

Eragiketa-mota.

Beste batzuk.

Metodologia datuen jatorriari jarraiki.

Uren kalitatearen jarraipen sarean datuak bilduz. Uren Euskal Agentziak kudeatutako uren kalitatearen jarraipen sareak edota Mugatze Hidrografiko bakoitzean eskumena duen erakundeak estazioetako informaziotik abiatuta lortutako datuak.

Aztertzen diren oinarritzko unitateak ur-masak dira, esaterako, ibai oso bat edo honen tarte bat, edota estuario bat edo honen zati bat. Azaleko ur masen kasuan, hainbat kategoria zehazten dira: ibaiak, estuarioak edo trantsizio urak, itsasertzeko urak, urtegiak eta laku eta hezeguneak; eta honen naturaltasunaren edo gizakiak eragindako aldaketa graduaren arabera hiru multzotan banatzen dira: naturalak, artifizialak eta oso aldatuak.

Azaleko uren egoeraren jarraipen eta ebaluaziorako irizpideak eta ingurumen kalitatearen arauak (IKA) 817/2015 Errege Dekretuak ezartzen ditu eta Plan

Hidrologikoek egoeraren ebaluaziorako beste hainbat alderdi garrantzitsu zehazten dituzte.

Azaleko uren egoera honen egoera edo potentzial ekologikoaren eta egoera kimikoaren baliorik okerrenaren bidez zehazten da, eta bi klasetan sailkatu daiteke: **ONA (O)**, Uraren Esparru Zuzentzarauaren (UEZ) ingurumen helburuak betetzen dituenean, eta **ONA BAINO OKERRAGOA (<O)**, ez dituenean UEZren ingurumen helburuak betetzen.

- **Egoera ekologikoa** azaleko urei loturiko ekosistema urtarren egitura eta funtzionamenduaren kalitatearen adierazle bat da. Horrek hurrengo barne hartzen du: adierazle biologikoen ebaluazioa (ornogabeen fauna bentonikoa, uretako flora (izaki fitobentonikoak, makrofitoak, makro-algak), fauna iktiologikoa eta fitoplanktona); kalitate-elementu biologikoetarako euskarriko adierazle kimiko eta fisiko-kimikoko ebaluazioa (baldintza termikoak, oxigenazio baldintzak, gazitasuna, azidotze egoera eta mantenugaiak, eta kantitate handietan ematen diren kutsatzaile zehatzen isurketak); eta kalitate elementu biologikoen euskarriko adierazle hidromorfologiako ebaluazioa, esaterako, ibaien kasuan: emarien erregimena, ibaiaren jarraitutasuna eta ur-bazterretako zonaldearen egitura bezalako baldintza morfologikoak.
- **Egoera kimikoa** azaleko uren kalitatearen adierazpena da, zeinak lehenasunezko substantzien eta bestelako kutsatzaileen Ingurumen Kalitate Arauen (IKA) betetze maila islatzen duen. IKA da ingurumena eta gizakien osasuna babesteko asmoz, uretan gainditu behar ez den kutsatzaile jakin baten (edo multzo baten), sedimentuen edota biotaren kontzentrazioa. Egoera kimikoa klasifikatzen da **ONA** bezala, IKA betetzen duenean, edo gainditzen ez badu: **EZ DU BETETZEN**.

UEZren arabera, **lurpeko ur masen egoera** bere egoera kuantitatibo eta kimikoaren baliorik okerrenarengatik zehazten da. Egoera kimikoa bi modutara klasifika daiteke: **ONA**, gazitze arazorik ez dagoenean eta Ingurumenaren Kalitate Arauak (IKA) betetzen direnean; edo **TXARRA**, gazitze arazoak aurkitzen direnean, edota IKAk betetzen ez direnean.

Helburuak

Ur-masen kalitatearen estatistikaren helburu nagusia EAeko planifikazio hidrologikoan zehaztutako ur-masen egoera ekologikoa aztertzea da, lurpeko urak eta akuiferoak barne.

Aztertzeko aldagai nagusiak

Ur-masen kalitatearen neurketan aztertutako aldagai nagusiak dira:

- Egoera ekologikoa (bere barne hartzen ditu egoera biologikoa, fisiko-kimikoa eta hidromorfologikoa)
- Egoera kimikoa
- Egoera orokorra

- Ur-masa mota
- Ur-masaren maila

Eremua

Populazio-eremua:

Ur-masen kalitatearen estatistikaren populazio-eremua honako hau da: EAEko Ibaiak, Itsasertzeko urak, Trantsizioko urak, Urtegiak, Lakuak eta hezeguneak eta Lurpeko Urak.

Lurralde-eremua:

Eragiketa estatistiko honen eremu geografikoa Euskadiko Autonomia Erkidegoaren eremu administratiboa da.

Denbora-eremua:

Ebaluatzeko aldia urte natural osoa da.

Galde-sortak

Zabalkundea

- [Internet: Laburpen taulak. Organo Estatistikoa](#)
- [Internet: Taula estatistikoak Eustat. www.eustat.es](http://www.eustat.es)